



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2016ko ABENDUAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2016ko abenduaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola

Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia
Onintza Gorostidi Murua
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 2. Fakturak eta ordainketak.**
- 3. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari, 2016ko aparteko ekarpenaren onespina, hala bada.**
- 4. Tolosaldeko hiltegi Mankomunitateari 2016 urteko aparteko ekarpenaren onespina, hala bada.**
- 5. Naturtzaindia irabazi asmorik gabeko elkarteak aurkezturiko fakturen onespina, hala bada.**
- 6. Bixente Otegi Lizaso S.L.-k Areta-Martitegi bidea konpondu eta asfaltatze lanak egiteagatik aurkezturiko 802016 faktura onestea, hala bada.**
- 7. Bixente Otegi Lizaso S.L.-k Altzorbe-Bengoetxea bidea konpondu eta asfaltatze lanak egiteagatik aurkezturiko 812016 faktura onestea, hala bada.**
- 8. Bixente Otegi Lizaso S.L.-k Errotako bidea konpondu eta asfaltatze lanak egiteagatik aurkezturiko 792016 faktura onestea, hala bada.**
- 9. Irabazi xederik gabeko erakundeek eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 10. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

11. Erregu, galdera eta mozioak.

11.1. Aiztondo bailarako presoan eskubideen aldeko mugimenduak aurkezturiko manifestuaren azterketa, hala bada.

LEHENENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

35/2016 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21ekoa, Alkizako Udaleko 2016 urteko bigarren goi-hilabeteko zabor tasaren udal errolda onartzea, ebatzen duena.

BIGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

BIDATEK	471,90
BIDATEK	943,80
TOLOMENDI	152,50
MOVISTAR	80,18
KEY-LAN	2,00
RECAMBIOS IBARRA	8,64
LYRECO	132,12
ARGITU	213,73
MOVISTAR	71,82
AUDAX	533,67
AUDAX	118,30
PAULO AZKUE	106,70
SOLRED	50,02
EDURNE BENGEOA	181,50
EBA ERKIZIA	1.048,16
IZADI	152,94
CORREOS	5,67
QUISER	268,44
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	483,95



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ENEKO ITURBE	145,20
EDURNE BENGOA	181,50
IBERDROLA	49,08
EUSKALTEL	64,08
AUDAX	40,79
AUDAX	64,99
AUDAX	106,79
AUDAX	170,06
AUDAX	34,76
AUDAX	22,94
AUDAX	39,03
AUDAX	174,92
AUDAX	211,21
AUDAX	223,65

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **6.555,04** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

HIRUGARRENGO PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI, 2016 URTEKO APARTEKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2016 ekitaldiko 3. Eta 4. Hiruhilabetean sortu diren gastuei aurre egiteko aparteko ekarpen bat eskatu diotela Alkizako Udalari, 4.000 eurotako alegia.

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldunditik 1.276,00 eurotako diru-laguntza bat eman diola Alkizako Udalari, gizarte ongizaterako.

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari egin behar zaion 4.000 eurotako aparteko ekarpenean ez zela aurreikusten Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar zuen diru-laguntzaren ordainketa.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari ordaintzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte ongizate gairako eman duen diru-laguntza, guztira 1.276,00 euro izanik.

BIGARRENA: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak eskatutako aparteko ekarpenari buruz, 2.724,00 eurotako ordainketa bat egitea. Eskatutako 4.000 euro horietatik Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte ongizaterako eman duen diru-laguntzaren kitapena egin delako.

HIRUGARRENA.- 1.276,00 eta 2.724,00 eurotako gastuak onartzea eta ordainketak burutu daitezzen agintzea.

LAUGARRENGO PUNTUA
TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2016 URTEKO APARTEKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak abenduaren 1ean egindako bilkuran, aho batez erabaki zuten, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata eta auditoriari ordaindu ahal izateko, 2016urtean 11.998,00 eurotako aparteko ekarpena bat egin behar dutela. Alkizako Udalarik 45,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2016 urteari dagokion aparteko ekarpena onestea, 45,00 euroko diru kopuruan.

BIGARRENA: 45,00 euroko gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BOSTGARRENGO PUNTUA
NATURTZAINDIA IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK AURKEZTURIKO FAKTUREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2015eko maiatzaren 6an, Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren artean lankidetzaren hitzarmena sinatu zela, azken honek, Hernio Gazume KBE barneko udal sailetan udalak lortutako EJ-ko laguntzen kudeaketa egiteko.

Ikusirik, 2016 urtean zehar Naturtzaindiak egin dituela hainbat lan, Eusko Jaurlaritzak Hernio Gazume KBE barneko udal sailetan emandako diru-



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

laguntzak justifikatzeko. Horretarako Naturtzaindiak Alkizako udalerrian eginiko lanen fakturak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2016/01 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 16.500,00 euro izanik.

BIGARRENGOA: 16.500,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

HIRUGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2016/02 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 20.500,00 euro izanik.

LAUGARRENGOA: 20.500,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BOSTGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2016/03 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 14.855,00 euro izanik.

SEIGARRENGOA: 14.855,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

ZAZPIGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2016/04 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 13.000,00 euro izanik.

ZORTZIGARRENGOA: 13.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BEDERATZIGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2016/05 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 16.000,00 euro izanik.

HAMARGARRENGOA: 16.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARRENGOA: Naturtzaindiak aurkezturiko 2016/06 faktura onestu. 2015maiatzaren 6an, sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren babesean. Fakturaren zenbatekoa 14.000,00 euro izanik.

HAMABIGARRENGOA: 14.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

SEIGARRENGO PUNTUA

BIXENTE OTEGI LIZASO S.L.-k ARETA-MARTITEGI BIDEA KONPONDU ETA ASFALTATZE LANAK EGITEAGATIK AURKEZTURIKO 802016 FAKTURA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik, 2016ko urriaren 4ean eginiko Udalbatzan, Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresari, Alkizako Areta-Martitegi bidea konpondu eta asfaltatzeko lanak egiteko kontratua esleitu zitzaioela.

Ikusirik, aipaturiko lanak bukatu dituela Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak. Lanari dagokion faktura aurkeztu duelarik. Bere zenbatekoa 28.558,00 euro direlarik.

Ikusirik, 2016ko udal aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidan badagoela aipaturiko gastua egiteko diru kopurua.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak aurkezturiko 802016 faktura onestea, bere zenbatekoa 28.558,00 euro direlarik. Alkizako Areta-Martitegi bidea konpondu eta asfaltatzeko lanak egiteagatik.

BIGARRENA: 28.558,00 euroko gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 1 0000.601.153.20.01 partidaren kontura.

ZAZPIGARRENGO PUNTUA

BIXENTE OTEGI LIZASO S.L.-k ALTZORBE-BENGOETXEA BIDEA KONPONDU ETA ASFALTATZE LANAK EGITEAGATIK AURKEZTURIKO 812016 FAKTURA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik, 2016ko urriaren 4ean eginiko Udalbatzan, Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresari, Alkizako Altxorbe-Bengoetxea bidea konpondu eta asfaltatzeko lanak egiteko kontratua esleitu zitzaioela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, aipaturiko lanak bukatu dituela Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak. Lanari dagokion faktura aurkeztu duelarik. Bere zenbatekoa 19.338,99 euro direlarik.

Ikusirik, 2016ko udal aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren badagoela aipaturiko gastua egiteko diru kopurua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak aurkezturiko 812016 faktura onestea, bere zenbatekoa 19.338,99 euro direlarik. Alkizako Altzorbe-Bengoetxea bidea konpondu eta asfaltatze lanak egiteagatik.

BIGARRENA: 19.338,99 euroko gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 1 0000.601.153.20.01 partidaren kontura.

ZORTZIGARRENGO PUNTUA

BIXENTE OTEGI LIZASO S.L.-k ERROTA BIDEA KONPONDU ETA ASFALTATZE LANAK EGITEAGATIK AURKEZTURIKO 792016 FAKTURA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik, Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak, Alkizako herrian hainbat lan burutu dituela, bertan zegoela aprobetxatuz Alkizako Errota bidea konpontzeko eskatu zitzaion, azken hau oso egoera txarrean zegoelako. Aipaturiko lanak bukatu dituzenez Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak, lanari dagokion faktura aurkeztu du. Bere zenbatekoa 2.250,00 euro izanik.

Ikusirik, 2016ko udal aurrekontuetako 1 0000.601.153.20.01 partidaren badagoela aipaturiko gastua egiteko diru kopurua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Bixente Otegi Lizaso S.L. enpresak aurkezturiko 792016 faktura onestea, bere zenbatekoa 2.250,00 euro direlarik. Alkizako Errota bidea konpondu eta asfaltatze lanak egiteagatik.

BIGARRENA: 2.250,00 euroko gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 1 0000.601.153.20.01 partidaren kontura.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARRENGO PUNTUA
**IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK EGINIKO DIRU-
LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2016 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik Behin Behineko Idazkari Kontu-hartzaileak adierazi duela diru-laguntzak esleitzeko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak xedaturikoa hartu beharko litzaketela kontutan.

Ikusirik 2016 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Nafarroa Oinez 2016.	100,00 euro.
- Herri Urrats 2016	100,00 euro.
-UNRWA Euskadi.	200,00 euro

GUZTIRA	400,00 euro
---------	-------------

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.

HAMARGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMABIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

**11.1.AIZTONDO BAILARAKO PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO
MUGIMENDUAK AURKEZTURIKO MANIFESTUAREN AZTERKETA, HALA
BADA**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Giza Eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira manifestua, non ondorengo dioen:

**“GIZA ESKUBIDEAK, IRTENBIDEA, BAKEA
EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!**

Urtero bezala, neguan murgildu garen honetan, gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Urteko azkenak eta urte berriko lehen egun hauek, senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabeko pertsonak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, ordea, garai aproposak dira guztien eskubideak errespetatzea eskatzeko, ehunka eta milaka kilometrora dauden presoek etxetik gertu behar dutela argi esateko.

Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako Udal ordezkariok, gainontzekoenak bezala, euskal presoen eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzen dugu, euren Euskal Herriratzetik hasita. Bada garaia herri honetan behin betiko konponbidea eta bakea eskuratzeko, baina hori ez da posible izango guztien eskubideak errespetatu arte.

Aiztondoko Udalok eskaera hori berresten dugu eta herritarrei ere parte hartzeko deia luzatzen dizuegu, giza eskubideak, konponbidea eta bakea aldarrikatzeko.

Honela, Aiztondo bailarako udal ordezkariok, datorren abenduaren 31n arratsaldeko 19:00etan Villabonako Errebote plazatik irten eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazan amaituko den manifestazio isila deitzea erabaki dugu.

Hauek dira manifestazio honen bidez, egiten ditugun oinarrizko eskaerak:

- 1.-Dispertsioa amaitzea eta euskal presoak euskal herriratzea. Beharrezkoa da presoek eta batez ere beren familia eta lagunei bidegabeko zigor erantsia ezartzen dien sakabanaketa politikarekin behin betiko amaitzea.*
- 2.-Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea. Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxean egoteko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan jasota dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden presoek berehalako kaleratzea exijitzen dugu.*
- 3.-70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BAKARRA: Giza Eskubideak, irtenbidea, bakea, Euskal Presoak Euskal Herrira! Manifestuari atxikimendua ematea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.25 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.